

V. PLANGINTZALDIA (2013-2017). TARTEKO EBALUAZIOA.

Legebiltzarreko aurkezpeneko testuak

V Plangintzaldirako Erabilera Planak onartuta (2013 – 2017)

HPSk irizpideak eman zizkien denei

HPSren irizpideak Legebiltzarrean aurkeztu genituen eta bere egin zituen EABk

Jaurlaritzarena Gobernu kontseiluak onartu zuen 2013an.

► Araudia

Dakizuenez, 86/1997 Dekretuaren 6. atalak arautzen du HPSk txostena igorriko diola Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluari, plangintzaldi erdian ezarritako helburuak zein neurritan bete diren ebaluatzeko. (Plangintzaldiaren 3. urte amaierako datuekin egindako ebaluazioa).

► Ebaluazioa egiteko, bi eratako informazioa jaso da:

- Informazio kuantitatiboa: V. Plangintzaldia osatzen duten esparruen inguruko informazioa eta zenbakizko datuak.
- Informazio kualitatiboa: erakunde bakoitzak bere erabilera planari buruz duen iritzi orokorra.

Ebaluazio Txostena hiru multzo nagusitan antolatu da: batetik, herri administrazioak orokorrean; bestetik, Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomiadunak; eta, azkenik, sozietate publikoak eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak. Aurreko plangintzaldiko datuekiko alderaketa ere egiten da.

Aurkezpen honetan ere ildo horri jarraituko diogu; batetik, aurkeztuko ditugu herri administrazioetako eta Eusko Jaurlaritzako emaitza nagusiak; eta, bestetik, sozietate publiko eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoen ondorio esanguratsuenak.

Guztira, 535 erakunderi bidali zitzaion galdetegia eta, horietatik, 415 erakundek erantzun zuten: herri administrazioen % 92k, eta sozietate publikoen %54k.

IV Plangintzaldiaren ebaluazio txostenarekiko, erakunde berri bat dago oraingon: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.

Hor ageri dira ebaluatutako entitate guztiak, 86/1997 Dekretuaren eraginpekoak.

Ebaluazioan aztertutako eremuak V. Plangintzaldian zehaztutakoak izan dira. Hona hemen:

1. Euskararen erabilera zerbitzu hizkuntzan
2. Euskararen erabilera lan hizkuntzan
3. Euskararen erabilera administrazio publikoen arteko harremanetan
4. Erakunde ordezkarien asistentzia eta parte hartzea
5. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak
6. Langile eta erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasuna
7. Langile eta erakunde ordezkarien erabilera planarekiko balorazioa eta parte hartzea
8. Herri administrazioetako emaitza kualitatiboak

Sozietate publikoetan eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan, bi eremu hauek aztertu ditugu:

1. Euskararen erabilera zerbitzu hizkuntzan
2. Euskararen erabilera lan hizkuntzan

Jarraian, Euskal Autonomia Elkarteko administrazio publikoetako **emaitza esanguratsuenak** aztertuko ditugu.

Galdetegia erantzun duten herri-erakundeen %84k indarrean du euskararen erabilera normalizatzeko plana.

Aurreko Plangintzaldiko kopurua gainditu egin da oraingoa, 2012an baino 14 normalizazio plan gehiago baitaude.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, sail eta erakunde autonomo guztiek dute erabilera plana (2012an baino bat gehiago: Emakunde).

ZERBITZU HIZKUNTZAREN BARRUAN

Jarraian aztertuko dugu euskararen idatzizko erabilera, herritarrei emandako zerbitzuari dagokionez:

Bidenabar, esan dezadan idatzizkoan neurtu ditugun arloak hauek izan direla: hizkuntza paisaia, argitalpenak, publizitatea eta herritarrekiko idatzizko harremanak.

Arreta eta jendaurreko zerbitzuetan, euskararen idatzizko erabilera honakoa hau da herri-administrazioetan:

- Euskara hutsean idazten diren idatziak: %40,5
- Ele bietan idazten direnak: %50,3
- Gaztelania hutsezkoak: %9,2

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, oso nabarmen, ele bietako eredu nagusitzen da idatzizko komunikazioan (%80,1).

Datuok erakusten dutenez, esan daiteke euskararen presentzia bermatuta dagoela herritarrei iristen zaizkien idatzien %90,8tan. Arlo honetan, herritarren hizkuntza eskubideak erabat bermatzeko bidean gaude. Non geunden eta non gaude. Aurrerapen hau nabarmentzekoa da, eta, gainera, euskara zerbitzu hizkuntza gisa bermatzeko erabilera planetan egindako lanaren isla eta ondorioa da.

Jendaurreko ahozko arretan, telefonoz eta leihatilan erabiltzen den euskara neurtu da, bai harrera egitean erabilitakoa, bai elkarrizketa osoan zehar garatutakoa. Azkenik, jendaurreko ekitaldietan erabili den hizkuntza ere aztertu da.

Emaitzei erreparatuta, herri administrazioek, orokorrean, herritarrari harrera euskaraz egiten diote %69tan. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, ordea, maila hori zertxobait apalagoa da (%54,1).

Eta, harrera egin ostean, herritarrek euskara aukeratzen dutenean, %75etik gora errespetatzen da euskal hiztunen hizkuntza hautua, bai herri administrazioetan orokorrean, bai Eusko Jaurlaritzan. Esparru honetan nabarmen aurrera egin bada ere (2012an %46 inguruko emaitza jaso zen), garrantzitsua da administrazioak neurriak hartzen jarraitzea, herritar guzti-guztien hautua bermatzera iristeko.

LAN HIZKUNTZA

Herri-administrazioetan euskaraz sortzen den dokumentazioari dagokionez, oro har esan dezakegu sortzen diren bost dokumentutatik bi euskaraz sortzen direla (%40, hain zuzen ere). Eusko Jaurlaritzan bost dokumentutatik bat sortzen da euskaraz (% 20,3).

Orokorrean, euskaraz sortutako indizea hobetu egin da aurreko plangintzaldiarekiko, %36,64tik %40ra igo baita.

Ezin dugu ahaztu V. Plangintzaldi honetako helburu nagusietako bat dela lan hizkuntzan aurrerapausoak ematea. Emaitzok erakusten dutenez, bide horretan urratsak ematen ari dira erakundeak, abian jarri dituzten erabilera planei esker.

Herri administrazioetako bileretako ahozko erabilerari dagokionez, batez beste lan bileretan %51,3 egiten da euskaraz. Aurreko ebaluazioarekiko datu honek gora egin du, 2012an bileretan ahoz %49,9 egiten zen eta. Eusko Jaurlaritzan, ordea, bileretako ahozko erabilera ozta-ozta iristen da laurdenera (% 23,5).

Lan bileretako idatzizko erabilerari dagokionez, dokumentuen bi heren pasatxotan ziurtatzen da euskararen presentzia herri administrazioetan. Eusko Jaurlaritzan, ordea, euskararen presentzia dokumentuen %45,5ean ziurtatzen da.

ADMINISTRAZIO ARTEKO HARREMANAK

Administrazioen arteko ahozko harremanei dagokienez, orokorrean, argi esan daiteke herri administrazioen arteko ahozko harremanen erdiak inguru euskaraz direla (%48,3). Eusko Jaurlaritza eta gainontzeko erakunde publikoen arteko harremanen herena euskaraz egiten da (% 32,3).

Administrazioen arteko idatzizko harremanei begiratuta, orokorrean, idatzizko harremanen erdiak euskara hutsez egiten dira (%49,8); ele bietan, %29,1; eta gaztelania hutsez, %21,1. Eusko Jaurlaritzari dagokionez, euskarazkoak %26,1 dira; eta elebitakoak, % 43,6

Beraz, euskararen presentzia administrazioen arteko harreman idatzietan da: % 79 orokorrean, eta % 70 administrazioen eta Jaurlaritzaren artekoetan.

ERAKUNDE ORDEZKARIEN ATXIKIMENDU EDO LOTURA ERABILERA PLANEKIKO.

ERAKUNDE ORDEZKARIEN ASISTENTZIA ETA PARTE HARTZEA

Erakunde ordezkariak erabilera planetako batzordeetan izan duten batez besteko asistentzia %80 ingurukoa izan da, bai Eusko Jaurlaritzan, bai herri administrazioetan orokorrean. Erabilera planen arrakastari begira, oso garrantzitsua da erakunde ordezkarien lidergoa indartzea. Asistentziaren datu altu horrek erakusten du ordezkarien inplikazioa badagoela eta erakundeek hartutako neurriak bide onetik doazela.

HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Erakundeen %61ek definituta dituzte hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, sail eta erakunde autonomo guzti-guztiek dituzte zehaztuta. Euskararen erabileran aurrera egiteko, ezinbestekoa da erakundeek finkatuta eta indarrean izatea hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak. Horregatik, komeni da erakundeek ahaleginak egiten jarraitzea esparru honetan.

Jarraian langileen hizkuntza gaitasunarekin lotutako datuak aztertuko ditugu:

Herri administrazioetako langileen %59,2k dagokion hizkuntza eskakizuna, edo goragokoren bat, egiaztatu dute. Horrez gain, %8,7k egiaztatuta dauka baxuagoren bat. Beraz, esan dezakegu langileen %67,9k euskaraz lan egiteko gaitasuna duela, neurri batean edo bestean.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, 7.676 lanpostutatik, 3.847 lanpostutako langileek egiaztatuta daukate dagokien hizkuntza eskakizuna edo goragokoren bat (%54,3). Horrez gain, 774 lanpostutan ere egiaztatuta dago hizkuntza eskakizun baxuagoren bat (%11).

Horrenbestez, ezagutza maila kontuan hartuta, esan daiteke administrazioa prestatuta dagoela, neurri handi batean, euskaraz lan egiteko eta herritarrei zerbitzua euskaraz emateko. Dena dela, kasu batzuetan, akreditazioa ez da nahikoa izaten euskaraz lan egiteko. Horregatik, berariazko hizkuntza prestakuntzaren / trebakuntzaren garrantzia azpimarratu behar da, hizkuntza ohituretan eragitearen garrantzia, eta abar: hainbat eragozpen Planen bidez pixkanaka gainditu behar direnak.

ERAKUNDE ORDEZKARIEN HIZKUNTZA GAITASUNA

Tarteko ebaluazioko datuen arabera erakunde ordezkarien %65,3k euskaraz lan egiteko gaitasuna dute, eta %52,3ak euskara erabiltzen dute. IV. Plangintzaldiarekin alderatuta, administrazio publikoetan ordezkarien lan egiteko gaitasuna nabarmen hobetu da, 2012an %56,4koa zen eta. 9 puntu egin du hobera erakunde ordezkarien euskara gaitasunak, 2012tik 2015era.

Eusko Jaurlaritzan 10 ordezkariatik 7k euskaraz dakite, eta %45ek euskaraz lan egiten dute. Lehen, 2012an, honela ziren:

Orokorrean, langileen eta erakunde ordezkarien planarekiko balorazio ona nagusitzen da administrazio publikoetan.

Batez bestekoari erreparatuta, balorazio oso ona edota ona eman dutenak %11,3 eta %31,4 dira, hurrenez hurren. Beraz, balorazio positiboa egiten % 42,7k; eta balorazio txarra edota oso txarra egiten dutenak ez dira %2ra ere iristen. Dena den, *ez daki/ez du ulertzen* %41,6k erantzuten dute; hau da, langile eta erakundeko ordezkari askok ez dute planarekiko baloraziorik egin.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, erdiak baino gehiagok (%53,8) begi onez ikusten dute plana (%42,6+%11,2): herri administrazioetan orokorrean baino 11 puntu altuagoa da Jaurlaritzaren Planaren balorazio positiboa. Balorazio txarra egiten dutenak ez dira % 3ra iristen. Eta ia laurden batek (% 24k) ez daki edo ez du erantzuten.

SOZIETATE PUBLIKOAK

Jarraian, erakunde publikoei eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoei dagozkien datu esanguratsuenak aipatuko ditugu.

Galdetegia Euskal Autonomia Erkidegoko 202 sozietate publikori helarazi zaie. Horietatik guztietatik, 110 erantzun jaso dira: % 54,45 (2012an 83k erantzun zuten).

Jasotako datuen arabera, 44 erakundek dute erabilera plana. IV. Plangintzaldiko datuen aldean, erabilera planen kopurua bikoiztu egin da: 2012an 20 erabilera plan zeuden, eta orain 44. V Plangintzaldirako Eusko Jaurlaritzaren Erabilera Plana egin genuenean, lehen aldiz onartu genuen (eta Planaren eranskin gisa jaso genuen) Sozietate Publikoetarako erabilera plan eredu bat. Horrek bistan da eragina izan duela.

HPS lanean ari da sozietate publikoekin eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoekin hainbat arlotan:

- 1- Erakundeen unibertsoa zabaltzen: gaur egun, jada, HPS 250 erakunderekin dago harremanetan.
- 2- Erabilera planak sustatzen: erabilera planik ez daukaten erakundeei laguntza eskaintzen ari da HPS. Horren ondorioz, 15 erabilera plan berri jarri dira abian ekimen horri esker.
- 3- Bikain ziurtagiria suztatzen: hizkuntzaren normalizazioaren ikuspegitik ondoen dauden erakundeetan, HPS Bikain ziurtagiria sustatzeko lanak egiten ari da.

TARTEKO EBALUAZIOA

ONDORIOAK

1. Azken ebaluazioa egin genuenetik, euskararen presentziak eta erabilerak gora egin dute –neurri diferenteetan bada ere– Administrazioaren esparru gehienetan, eta batez ere, hauetan: herritarrekiko ahozko eta idatzizko harremanetan, euskarazko dokumentuen sorkuntzan, eta langileen nahiz erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasunean.
2. Hala ere, oraindik ere hobekuntza tartea dago hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideen zabalkundeetan, herritarrekiko euskararen ahozko erabileran, eta beste zenbaitetan.
3. Datuek agerian jartzen dute administrazioetan martxan jarri diren erabilera planen garrantzia eta eraginkortasuna. Han eta hemen zabaldua dauden plan horiek aukera bikaina ematen dute kasuan kasuko erakundearen ahuleziak eta indar-guneak identifikatzeko, eta baita ekintzak abian jartzeko ere, normalizazio-helburuak arian-arian bete daitezzen.
4. Horren guztiaren ondorioz, Administrazioa inoiz baino prestatuago dago, herritarrei euskarazko zerbitzua emateko eta euskaraz lan egiteko; nolana ere, bide luzea gelditzen da oraindik, baina herri-administrazioak aurrera doaz, urrats sendoz eta gelditu gabe.
5. Orain arteko bost plangintzaldietan, erakundeen eskuetan egon da ebaluazioa; hurrengo plangintzalditik aurrera, ordea, ebaluazio hori kanpoko ebaluatzaileen esku geratuko da, eta horrek zehaztasun eta fidagarritasun handiagoa emango dio prozesuari. Kanpoko ebaluaziorako erabiliko den tresna BIKAIN da, eta hori dela-eta, hainbat moldaketa eta berrikuntza egin dira dekretuan, ziurtagiria sektore pribatuari ez ezik, sektore publikoari ere egokitzeko.
6. Hemendik aurrera, ebaluaziorako egitura estandar eta egonkorra izango dugunez –Bikainena–, erabilera planen egitura ere lerrokatuta nahi dugu ebaluazioarekin, planen kudeaketari berari erraztasunak emate aldera. Beraz, hurrengo plangintzaldirako, plan eredu bat aurkeztuko dugu (diagnostikoa, plan estrategikoa eta urteko kudeaketa plana), EAEko sektore pribatu eta publikoko euskara plan guztien egitura eta metodologia aurreneko aldiz bateratzen saiatzeko.